

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Funtsezkoa da argi eta garbi definitzea gure enpresak bezeroekin nolako harremana ezartzea nahi dugun. Harreman-mota hori izan daiteke pertsonala eta aurrez aurrekoa edo automatizatua, web-aplikazioak eta erantzungailu automatikoak erabiliz. Gure kasuan, biak erabiliko ditugu; hau da, bai harreman-mota pertsonala, baita harreman mota automatizatua ere, gure webgunearen bidez.

Bezeroarekiko harreman mota anitzak daude: Laguntza pertsonala, laguntza pertsonal eskainia, autozerbitzua, zerbitzu automatizatuak, komunitateak eta baterako sorkuntza. Gure enpresak laguntza pertsonala, autozerbitzua eta komunitateak erabiliko ditu.